

## **LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA**

### **9-12 URTE BITARTEKO GARAPENAREN EZAUGARRI OROKORRAK**

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa osatzen duten 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek aldaketa asko jasango dituzte urte hauetan zehar garapeneko alderdi ezberdinetan (intelektualean, sozialean, afektiboan...). Haurtzaroaren urteak atzean geratzen hasten dira, nerabezaro-aurreko garaira igarotzeko.

Urte hauetan haurrek agertzen dituzten ezaugarri orokor eta esanguratsuenak modu labur eta sinple batean azaltzeko helburua du laburpen honek. Kontuan izan, hala ere, haur bakoitzaren garapen-prozesua indibiduala dela eta bakoitzak bere erritmoa jarraituko duela.

**9 urte inguruan**, haurrek intelektualki bere pentsamendu logikoa garatzen dute, honekin batera behaketarako, hausnarketarako, analisiarako eta sintesirako gaitasuna zabalduz. Munduak eskaintzen diena asimilatzen joaten dira. Beren ikuspegitik haratago joateko gaitasuna garatzen dute, "bestearen perspektiba"-ren kontzientzia azalduz.

Sozialki lagun-taldeak protagonismoa irabaziko du, jolasak eta kooperazioak indarra hartzen dutelarik. Haurrak talde baten parte dela eta gutxienez lagun bat daukala sentitu behar du. Horrela, sortzen diren jolasetan helduak inposatzen duenaz gain, taldeak sortutakoak eta adostutakoak garrantzia handia hartuko dute. Familiaren eraginaren eta haurrak taldearekin daukan elkarrekintzaren ondorioz, bere moral propioa garatuz joango da. Ondorioz, gezurrak eta iruzurrak gaitzesteko jarrerak ohikoak izango dira. Haurren lidergoen arteko talkak gerta litezke, eta beraien arteko lehiakortasuna handia izango da.

Gurasoen beharra oraindik oso handia izango da.

**10 urteko** haurren pentsamendua logikoa izango da oraindik, eta egoera zehatzei lotuta egongo da, hortaz, hainbat fenomenoren ulermenak adibide zehatz eta egoera konkretuei lotuta egotea eskatuko du.

Sozialki lagun taldeak indar handiagoa hartuko du eta sozializazio beharra handiagoa izango da. Haurrak bere gertaera intimoak lagunekin partekatzea eskatuko du. Harremanetan, orokorrean, neskak eta mutilak bananduak egongo dira, eta nesken arteko gatazkak eta lehiakortasunak ohikoak izango dira.

Haurrak autonomia duen moralaz azalduko du, eta sinismen propioak eta balore sendoak ager ditzake. Honek hainbatetan gurasoak kuestionatzera eraman lezake. Hala eta guztiz ere, oraindik familia-bizitzara oso lotuta egongo da.

Nerabezaroko pultsio sexuala oraindik piztu ez bada ere, curiositate sexualak indarra hartuko du.

**11** urterekin, haurtzaroaren eta nerabezaroaren ezaugarriek topo egingo dute eta elkarrekin biziko dira. Gerta liteke ikasleek adierazten duten ezaugarrietan desberdintasun oso handiak agertzea, batzuk nerabezarotik gertu azalduz, eta beste batzuk, aldiz, aurreko urteetako ezaugarrietan oraindik.

Intelektualki pentsamendu formalaren hasiera ikusi ahal izango da, arrazonamendu abstraktuari harrera emanez. Aurreko urteetako zentzu moralaz indartuz joango da.

Hainbat kasutan, eta batez ere neska batzuegan, pubertaroaren aldaketa fisiologiko, hormonal eta anatomikoak gertatuko dira. Orokorrean ikasleen intimitate beharra handiagoa izango da. Nerabezaroaren hasierako gora-behera emozionalak ikusten hasiko gara. Segurtasun falta oso handia izango dute eta harropuzkeri moduan adierazteko joera ohikoa izango da. Gurasoen babes beharra, ordea, oso handia izango da oraindik.

Sexuarekiko interesa handia izango da.

**HELDUAREN PAPER:**

Ezaugarri hauek kontuan izanda, seme-alabekin harremanean gomendagarriak diren hainbat jarrera aipa ditzakegu:

- **Beraien gauzengatik interesa azaldu eta komunikazioa sustatu.** Beraiekin elkarrizketa uneak bilatzea beharrezkoa da, eta beraien bizipenen inguruan galderak egin, entzun, hausnartzen lagundu, arazoitu, sentimenduak adierazi, soluzioetan elkarrekin pentsatu,... egingo dugu. Beraiekin atxikimendu afektiboa indartu eta kontentzio emozionala eskaintzeaz gain, egunero aurre egin behar dituzten egoerak kudeatzeko baliabideak eta orientabideak eskainiko dizkiegu. Elkarrizketa hauetan, indibidualki eta taldean nola dauden galdetzea garrantzitsua da, izan ere, azal ditzaketen zalantzak edo zailtasunak plano indibidualean edo besteekin elkarrekintzan suerta litezke.
- **Beraien autonomia sustatu eta ardurak eman.** Haurtzaroaren lehenbiziko urteetatik, ezinbestekoa da beren adinari egokituta eta dauzkaten gaitasunen arabera, gauzak beren kabuz egiten hastea eta ardurak hartzea. Oso garrantzitsua da haurren autoestimurako, berarengan segurtasuna indartzeko eta autonomia garatzeko. Modu honetan, bere objektu pertsonalen ardura hartzea, eskolatik bidaltzen zaizkien etxeko lanen kudeaketa bakarrik egiten ikastea, etxeko eginbeharretan (gela jaso, erosketa sinpleak...) parte hartzea eta ardurak izatea ezinbestekotzat joko ditugu. Prozesu horrek guztiak, egun batetik bestera lortzen ez denez, helduaren segurtasuna eta laguntza behar ditu, eta gainbegiraketa eta kontrola beharrezkoak izango dira.
- **Arauak jarri eta beraien frustrazioa kudeatzen lagundu.** Haurrek arauak eta autoritatea behar dituzte, hauek segurtasuna ematen baitiete. Beren desioen eta frustrazioaren autorregulazioa lortzeko funtsezko aldagaiak izango dira. Haurrek nahi duten guztia nahi duten moduan beti edukitzea ezinezkoa da. Ezezkoak jasotzen ikasi behar dute. Honek sortzen duen haserrea eta frustrazioa kudeatu behar dituzte, beren burua kontrolatzeko eta sozialki onargarriak diren jarrerak garatzeko.

## SEGUNDO CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

### **Características generales del desarrollo de 9 a 12 años**

Los alumnos y alumnas de los cursos 4º, 5º y 6º que componen el segundo ciclo de Educación Primaria sufrirán a lo largo de estos años muchos cambios en los diferentes aspectos del desarrollo (intelectual, social, afectivo). Los años de la infancia empiezan a quedar atrás para pasar a la época preadolescente.

Este resumen pretende explicar de una manera breve y sencilla las características más generales y significativas que presentan los niños y niñas en estos años. Hay que tener en cuenta, sin embargo, que el proceso de desarrollo de cada niño y niña es individual y cada uno seguirá su ritmo.

**Alrededor de los 9 años**, los niños desarrollan intelectualmente su pensamiento lógico, ampliando con él su capacidad de observación, reflexión, análisis y síntesis. Van asimilando lo que el mundo les ofrece. Desarrollan la capacidad de ir más allá de su propia visión, explicando la conciencia de la "perspectiva del otro".

Socialmente el grupo de amigos ganará protagonismo, cobrando fuerza el juego y la cooperación. El niño o niña debe sentirse parte de un grupo y tener al menos un amigo o amiga. Así, además de lo que impone el adulto en los juegos que se crean, lo creado y acordado por el grupo cobrará mucha importancia. Debido a la influencia de la familia y a la interacción del niño con el grupo, irá desarrollando su propia moral. En consecuencia, las actitudes de rechazo a las mentiras y fraudes serán habituales. Podrían producirse choques entre los liderazgos de los niños y la competitividad entre ellos será alta.

La necesidad de los padres será todavía muy grande.

El pensamiento del niño o niña de **10 años** seguirá siendo lógico y estará ligado a situaciones concretas, por lo que la comprensión de diversos fenómenos requerirá de ejemplos concretos y de situaciones concretas.

*Socialmente el grupo de amigos cobrará más fuerza, y la necesidad de socialización será mayor. El niño pedirá compartir sus hechos íntimos con sus amigos. En las relaciones, en general, chicas y chicos estarán separados, siendo habituales los conflictos y la competitividad entre chicas.*

*El niño o niña mostrará una moral con autonomía, y puede presentar creencias propias y valores sólidos. Esto podría llevar a cuestionar a sus padres en varias ocasiones. A pesar de todo, todavía estará muy unido a la vida familiar.*

*Aunque la pulsión sexual de la adolescencia aún no se ha encendido, la curiosidad sexual cobrará fuerza.*

*A los **11 años**, las características de la infancia y la adolescencia se encontrarán y convivirán. Puede darse el caso de que en las características que manifiestan los alumnos aparezcan diferencias muy importantes, encontrándose algunas cerca de la adolescencia, y otras, en cambio, todavía en las características de años anteriores.*

*Intelectualmente se podrá ver el comienzo del pensamiento formal, acogándose al razonamiento abstracto. El sentido moral de años anteriores se irá reforzando.*

*En varios casos, y sobre todo en algunas chicas, se producirán cambios fisiológicos, hormonales y anatómicos de la pubertad. En general la necesidad de intimidad de los alumnos será mayor. Empezaremos a ver las vicisitudes emocionales del inicio de la adolescencia. Tendrán una inseguridad muy grande, y la tendencia a expresarse de forma vanidosa será habitual. Sin embargo, la necesidad de protección de los padres será todavía muy grande.*

*El interés por el sexo será grande.*

### **FUNCIÓN DEL ADULTO:**

*Teniendo en cuenta estas características, podemos señalar una serie de actitudes recomendables en la relación con los hijos e hijas:*

- **Mostrar interés por sus cosas y fomentar la comunicación.** Es necesario buscar momentos de diálogo con ellos y hacer preguntas, escuchar, ayudar a reflexionar sobre sus vivencias, razonar, expresar sentimientos, pensar juntos en soluciones... Además de reforzar su apego afectivo y ofrecerles un sentido emocional, les ofreceremos recursos y orientaciones para gestionar las situaciones a las que se enfrentan diariamente. En estas conversaciones es importante preguntarse cómo se encuentran individual y colectivamente, ya que las dudas o dificultades que puedan plantear podrían surgir en el plano individual o en la interacción con los demás.
- **Promover su autonomía y darles responsabilidades.** Desde los primeros años de la infancia, es imprescindible empezar a hacer las cosas por sí mismos y asumir responsabilidades adaptadas a su edad y en función de sus capacidades. Es muy importante para la autoestima del niño, para reforzar la seguridad en sí mismo y para desarrollar la autonomía. De esta manera, se considera imprescindible hacerse cargo de sus objetos personales, aprender a gestionar por ellos mismos los deberes que se les envían desde la escuela, participar en las tareas domésticas (recoger la habitación, compras simples...) y tener responsabilidades. Todo este proceso, al no conseguirse de un día para otro, requiere de la seguridad y del apoyo del adulto, y serán necesarias la supervisión y control.
- **Poner normas y ayudarles a gestionar su frustración.** Los niños y niñas necesitan normas y autoridad, ya que éstas les dan seguridad. Serán factores clave para conseguir la autorregulación de sus deseos y de su frustración. Que los niños tengan siempre todo lo que quieran y como quieran es imposible. Tienen que aprender a recibir negativas. Tienen que gestionar el enfado y la frustración que esto genera, para controlarse y desarrollar actitudes socialmente aceptables.